

**HIRIGINTZA FITXA. - 26 SO. DEBAKO HONDARTZA**  
HIRITARREZINA**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.****1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.**

Ez da egin.

**1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA.**

Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak, Kosta Legea.

**1.3. HIRI EGITURA.**

Lurraldearen egitura organikoa eratzen duen elementua da, udalerriko hondartzetako bat izaki.

**1.4. ESPARRUAREN AZALERA. 125.610 m<sup>2</sup>****2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

**2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA :** Hiritarrezina.

**2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA :** Hiriko espazio libreen sistema (11. artikulua: F.1).

**2.3. ALDERDIEN MUGAKETA :** Hirigintzako esku-hartze alderdi batu eta homogeen gisa eratuko da: Debako hondartza.

**2.4. ITSASO ETA LEHORRAREN ARTEKO ZEDARRIPEN PUBLIKOA:**

Kosta Zerbitzuak eskainitako 4.5 planoaren arabera.

**3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.**

Debako portura itsasotik sartzeko bokalea zabaltzean Santiagoko hondartza handitu delarik, Laparirekin hondartza bakarra osatuz, posible da hondartza zerbitzuak berregokitzea. Edonola ere, elementu horiek aldameneko 1 SO. "Erriberako eta hondartzako pasealekuak" esparru osagarrian daude.

**3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.**

Espazio libreen sistema orokorra: Debako hondartza.

**3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.**

Kosta Legearen arabera.

**3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.**

**Probetxamendua.** Ez da ezarri. 1 SO. "Erriberako eta hondartzako pasealekuak" esparruan aurreikusi da.

**Eraikuntza.** Ez dago baimendua.

**Erabilera orokorra.** Soilik hondartza.

**Erabilera erregimen orokorra:** Hirigintza Araudiaren 12. artikuluen arabera.

Hondartzako zerbitzu osagarriak.

Oinezkoentzako pasealekuak, bertan egotea, eta eguzkia eta bainua hartzea.

**Jabaria.** Publikoa (Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa).

#### 3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuen arabekoak.

#### 3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Aipatu esparruan edozein esku-hartze egiteko, jabari publikoko lurretan eragiten duenez, beharrezkoa izango da dagozkion emakidak edo baimenak edukitzea eta Kosta Legearan kasu bakoitzerako adierazitako zehaztapenetara lotzea.

Babes zorpenaren eraginpeko eraikinek Kosta Legearen Laugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorpeneko zonan baimendutako erabilerek Kosta Legearen 24 eta 25. artikuluetan ezarritakoa beteko dute.

Hondartzen zerbitzurako edozein ekipamendu jartzean, kontuan hartu beharko dira 22/88 Kosta Legearen 25.2 artikulua ezartzen dituen mugak.